

Apirilaren 18an **JAUNAREN AFARIKO OSTEGUN SANTUA**

Jaunaren Afariko Meza arratsaldean, ordurik egokienean eta parrokiako elkarte osoak bete-betean parte harturik ospatuko da, eta apaiz eta beste eliz zerbitzari guztiek, dagozkien eginkizunak betetzen dituztela.

Arrazoi pastoralak hala eskatzen duenean, Gotzainak edota lekuko Ordinarioak eman dezake baimena elizetan eta kultu-lekuetan beste Meza bat emateko arratsaldean; eta, behar-beharrezko denean, baita goizean emateko ere, baina arratsaldeko Mezara inola ere joan ezin diren kristaudentzat bakarrik. Baina, kontu izan behar da, Meza hauek bakartxo batzuen onerako bakarrik eta arratsaldeko Meza nagusiaren kaltetan izan ez daitezen.

Gure Jauna Meza barruan bakarrik eman daiteke; gaixoei, ordea, eguneko edozein ordutan.

Aldarea lorez apainduko da, baina egun honi dagokion neurritasunez. Sagrarioak huts-hutsik egon behar du; apaizek eta kristauek gaur eta bihar jaunartzeko behar adinbat ogi Meza honetan sagaratu behar da.

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Jesusen Azken Afaria, Bere bizitzaren ondorio da: bizitzan egindako zerbitzua eta eskaintza bildu zitueneko eguna. Gurutzean egingo zuena ezaugarri bidez –ogiaren eta ardoaren bidez– agerian jarri zituen. Piztueraren bidez gertatuko zena aurreratu zuen.

Arratsalde honetan, gu, Jesusen ikasle eta jarraitzaileok, berak buru den mahaiaren inguruan biltzen gara Apostoluak gau hartan bezala. Han egin eta esan zuena, Jesusek berak, hemen esan eta egingo du, gure artean, egia eta maitasun berberaz.

Poztu gaitezen Gurutzeko eskaintzaz, Gurutzetik datorkigu osasuna, Gurutzetik gure piztuera eta bizia, Gurutzetik salbamena eta askatasuna.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

- Jesus Jauna, zurekin parte izan zezaten ikasleei oinak garbitu zenizkiena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, betiko bizi gaitezen zerutik jaitsitako biziaren ogia zarena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, zure odolaz itun berri eta betikoa eratu duzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Aintza (*bitartean jo daitezke kanpaiak eta txilinak*)

Otoitza

**Jainko Jauna,
zure Seme bakarrak bere burua heriotzara eman aurretik
betiko Itunaren opari berria utzi zion Elizari;
Haren maitasun agiri den
Afari santua ospatzera bildu gaituzu gaur hemen;
egizu, misterio handi hau ospatzeak
maitasunez eta bizi berriz bete gaitzala.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Gaurko Meza honetan, oso garbi ikusten dugu Meza guztietan gertatzen dena: entzuten dugun Hitza bete egiten dela ospakizunean bertan, gudan. Gaur herri askatua gu gara, gaur Kristok guretzat ematen du Bere burua, gaur Kristo gure zerbitzari egiten da guk ere gure burua eskaintzen eta guztien zerbitzari izaten ikas dezagun.

Lehenengo irakurgaia (Ir [Ex] 12, 1-8. 11-14)

Exodo liburutik

Egun haietan, Jaunak honela esan zien Moisesi eta Aaroni Egipto aldean: «Hil hau izango duzue hilik handiena; urtearen lehenengo hila izango duzue. Esaiozue Israel herri osoari: «Hil honen hamarrean, guztiok bildots bana hartuko duzue, familia bakoitzak eta etxe bakoitzak berea. Eta bildotsa jateko familikoak aski ez badira, deitu auzoari eta bildu behar adina lagun; bakoitzak bere zatia jango du, guztia bukatzeraino.

Bildotsa, akatsik gabea izango da, aharikoa, urtekoa, arkume, nahiz antxume. Bizirik edukiko duzue hilaren hamalau arte, eta israeldar guztiek ilunabarrean hilko dute. Odola hartu, eta igurtziko dituzue, jan duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua. Gau hartan, sutan errea jango duzue haragia, eta ogi legami gabea eta barazki garratzak.

Eta era honetan jango duzue: gerria lotuta, oinetakoak jantzita, makila eskuan; ahal duzuen lasterrenik jango duzue, Bazkoa baita, hau da: Jaunaren Igarotzea. Gau hartan Ni Egiptoko lurraldetik igaroko naiz, eta Egipto lurraldeko lehen ume guztiak hilko ditut, bai gizonetan, bai abereetan, eta Egiptoko jainkoei berena emango diet. Hala Ni Jauna! Zaudeten etxeetan, odola izango da zuen

ezaugarri. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz, eta ez da zuenean herio zigorrik izango, Nik Egiptoko lurraldea jotzean.

Egun hau oroigarri izango duzue eta jai handi egingo diozue Jaunari zuen belaunaldietan; betiko jai egun egingo duzue».

Erantzun-salmoa (Sa/ 115, 12-13. 15-16. 17-18)

Zu - re ka - li - zak bat gai - tu e -
gin Je - su Kris - to - ren O - do - la - re - kin.

Zer bihurtuko diot Jaunari,
eman dizkidan guztiengatik?
Salbamen-edontzia dut hartuko,
eta Jaunaren izena deituko. R/.

Jaunaren begietan balio handikoa ‘
Haren zintzoen herioa.
Zure morroi nauzu ni, Jauna,
zure morroi eta zure neskamearen umea,
askatu dituzu nire kateak. R/.

Eskainiko dizut gorets-oparia,
deituko dut, Jauna, zure izena.
Emango dizkiot Jaunari zin egindakoak,
herri guztia begira dagoela. R/.

zuen batez ere. Egiptoren esklabotzatik askatuta herri gisa existitzen hasi zenekoa. Hala pasatu zen Israel esklabotzatik askatasunera.

Askapen gertaera haiek Jainkoaren Herriari nortasuna ematen dion **Pazkoaren ospakizunean** geratu ziren islatuta (*Ex 12, 1-8. 11-14*). Egiptoko lehen-seeen heriotza eta Israelen aurretik pasatzea izan zen askapena eragin zuen gertakaria. Argi eta garbi utzi zuen Jainkoak bere herria askatzeko zuen boterea. Pazko-bildotsak, azkar-azkar eta belar mingotsez jandakoak, pasatako esklabotza-aldia gogorarazten du eta Erreinuko otorduaren itxaropenari eusten dio.

Bere nekaldiaren eta aintzaren aurretik, pazko-afaria egin zuen Jesusek bere ikasleekin. Mundu honetatik Aitarengana pasatzeko unea zen, bere exodoaren garaia, askatasunera igarotzea. Afari hartan ezarri zuen **Eukaristia**, pazko-misterioaren oroigarri den sakramentu-keinua (*1 Ko 11, 23-26*). Maitasunezko keinu hori da Elizaren nortasun sakona. Jesusek bere gorputza eta odola emango dizkio munduari, itun berria egiteko. Jainkoaren Herriak ezkontza-ituna du Kristorekin, haren maitasuna hartu eta munduari ematen dio.

Maitasuna konkretua da beti, eta sakrifikatua da, normalean. Nork bere buruari uko egitea eta besteari zabaltzea dakar. Jesusek beste keinu benetan gogoangarri batekin hasi zuen afari hura, oinak garbituz. Jendeak eskuak garbitzen zituen, jan aurretik. Jesusek oinak garbituko dizkie bere ikasleei; ez erritu bat betetzeko, **ikasbide emateko** baizik (*Jn 13,1-15*). Zerbitzu-ekintza da, eta egilea desagertu egiten da egindako ekintza horretan. Esklavo-lanak ez du onartzen batek bere burua on egitea. Nolanahi ere, bere Elizari beste horrenbeste egiten erakusteko aukeratuko du Jesusek lan hori.

Bat ez da Elizako kide bere burua errealizatzeko, espiritualtasuna lantzeko eta besteen gainetik sentitzeko. **Munduaren zerbitzura** dago bat Elizan, eguneroko lanak bere izaera apenas adierazi gabe egiten. Ez du axola. Garrantzitsua ez da batek egiten duena, horretan jartzen duen maitasuna baizik: “bereak, munduan zeudenak, maitatu ondoren, azkeneraino maitatu zituen”.

Xehetasunik txikienean agertzen da Jesusen maitasuna. Bere bizia emateko prest dagoen pertsona bakarrik da gai bizitzako ekintza txikiei zentzua emateko. Maitasuna zerbitzua da. Ekintza baliagarri bakoitzean agertzen da pertsonaren maitasuna. Eukaristia honek berriro dezala Jesusen antzera gure bizia gauza txikietan emateko konpromisoa.

Homiliaren ondoren, ikuspegi pastoraletik egoki bada, oinak garbitzea egingo da. Horretarako Jainkoaren herriaren artean aukeratuak izan direnak aurrez ipinirik dauden jarlekuetara eramango dituzte laguntzaileek. Gero, apaiza (hala behar izanez gero, kasuila utzirik) bakoitzarengana hurreratuko da, eta laguntzaileek oinak urez bustitzen eta lehortzen lagunduko diote. Bitartean kantu egokiren batzuk abestuko dira.

Oinak garbitzeari oharpena

Jesusek bere ikasleekin egin zuena, orain, elkarteko buru den apaizak egingo du. Gure Maisu eta Jaunak esana da: “Nik oinak garbitu dizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue”. Hau da, denok elkarrekin zerbitzalagoak izan behar dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Kristori, Jainkoaren Gantzutuari, bere eskuetan utzi baitu Aitak guztia, eta eska diezaiozun entzun ditzala gure otoitzak:

Erantzuna: **Elkar maite dezagun egigun otoitz.**



El-kar mai-te de-za-gun e-gi-gun o-toitz.

- Kristau guztiek jakin dezatela bere ikasleei oinak garbitu zizkien Jaunaren apaltasun erduei jarraitzen, eta izan dezatela ukatu zuen Pedroren malkoak onartu zituenaren onginahi bera. R/.
- Egun hauetan bere ministerioaren hasiera oroitu eta beronen promesak berriro dituzten Jose Ignazio gure Gotzainaren eta bere apaizen alde; Jesusekin erabat lotuta bizi daitezzen emandako hitzarekin leial izanez. R/.
- Sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak batasunean biltzeko bere burua heriotzara eman zuen Jaunak, eman diezaiela egiazko bihotz-berritzea bekatuarengatik edo axolagabekeriarengatik bere Elizatik aldendu direnei. R/.
- Gotzainak sagaratu-berri duen salbamenaren olio gantzutuak izango diren gaixoek bizi dezatela Jaunaren babes eta arinduak izan daitezela bere min eta gaixotasunetan. R/.
- Bera behertzean altxa, Bere burua eskainiz barkamena iritsi, Bere odolez garbitu eta Bere haragiz janaritu gaituen Jaunak, argi ditzala gure buruak gaur gertaberritzen ditugun misterioak ulertu eta maitatu ditzagun. R/.

Jesu Kristo Jauna, oraindik lurrean bizi gara eta betiereko otorduaren aurrerapen den mahaira deitzen gaituzunez, entzun gure otoitzak eta egizu zure garaipenaren sakramentuak ospatzera biltzen garenok mahaikide izan gaitzela betiereko Pazkoaren mahaian. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristi otoitza hastean

Esker-Otoitza zuzenduko diogu Jainkoari apaizaren ahoz. Isilunez eta arretaz bat egingo dugu.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jaunartzea bukatutakoan, aldare gainean utziko da kopoia, hurrengo egunean jaunartzeko ogi sagaratuarekin. Apaizak, jarlekuan zutik, jaunartze ondorengo otoitza esango du.

**Jainko ahalguztiduna,
hemen ospatu dugun zure Semearen Afarian berriztatu gaituzu;
egizu, egunen batez,
Haren erreinuko mahaian ase gaitzela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Sakramentu Santua toki berezira aldatzerakoan

Orain Kristoren Gorputza gordeko dugu, biharko elizkizunean jaunartzeko. Jaunak Eukaristian eman digun dohain paregabea gozatzeko aukera ematen zaigu arrats honetan. Gurtu dezagun fedez Eukaristiaren misterioa. Bihar, (*ordua zehaztu*) bilduko gara Jaunaren Nekaldiaren eta Heriotzaren ospakizuna egiteko.